

“KASILDA” PARKEA IZENDATZEKO PROPOSAMENA

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga naizen honek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 90. eta 91. artikuluetan oinarriturik, “Kaleak izendatzeko Ponentzian azter dadin, ondoko **PROPOSAMEN** hau aurkezten dut: *Kasilda parkea* esatea Ametzagaña, Gabriel Aresti eta Tturkoene kaleen eta Maria Reina ikastetxearen artean dagoen parkeari.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko legealdian kale-plazak izendatzeko eginiko lanen baitan, ondorio argienetako bat izan zen erabateko desoreka dagoela gizonen eta emakumeen omenezko izendapenetan. Alde horretatik, gure taldeak, beste batzuek bezala, konpromisotzat hartu genuen egoera hori gogoan izatea leku publikoak izendatzeko proposamenak egiterakoan, eta horrela oreka handiagoa lortzea.

Halaber, joan den otsailaren 25ean Udalbatzak aho batez onartu zuen Martxoaren 8ari dagokion Erakunde Adierazpena. Hain zuzen Erakunde Adierazpenak, gaur martxoaren 8an eta udal talde guztion ordezkarien artean irakurri dugun bezala, honela dio bere 11. puntuan: “*Donostiako Udalak hitzematzen du Donostiako kale izendegia aztertuko duela eta emakumeen izen gehiago sartuko dituela*”.

Horiek horrela, presente izan dugu “Emakumea eta Hiria” delako foroaren proposamenen artean Kasilda izena jartzea zegoela, eta, berau lehen lekuan gainera.

Kasilda Hernaez donostiarra, borrokalari feminista eta anarkista izan zen eta Egia auzoarekin guztiz lotua, CNTko militante hau bertako auzokide izan zelako. Horregatik bere izena gogorarazteko, Egian dagoen parke bat proposatzen dugu, hau da, Ametzagaña, Gabriel Aresti eta Tturkoene kaleen eta Maria Reina ikastetxearen artean dagoen parkea. Proposamena egiten duen talde honen ustez, ekimen honekin Kasilda Hernaez gogoratuko genuke, bai eta emakumeen eta langileen alde egin zuen borroka, eta, nola ez, faxismoaren kontra egin zuen borroka ere.

Izena, noski, berbera litzateke euskaraz eta gazteleraz, eta bere auzokideen gogoratu duten bezala: Kasilda.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Horiek horrela direla, haxe da EH Bildu udal taldeak Udalbatzari azterkizun aurkezten dion

PROPOSAMENA

Donostiako Udalbatzak erabaki du “*Kasilda parkea*” izendatzea Ametzagaña, Gabriel Aresti eta Tturkoene kaleen eta Maria Reina ikastetxearen artean dagoen parkeari.

Donostian, 2016ko martxoaren 8an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
EH Bildu udal taldeko bozeramailea.